

Funtsezko Jarduerak

Gure enpresak beste guztiak bezala funtsezko jarduera batzuk beharko ditu baina gure kasuan ez ditugu asko izango dena azpikontratatu dugu eta. Esan bezala, jarduera gutxi izango ditugu eta hauetako bat aplikazioaren sorreran lan egitea izango da. Beste enpresa bateri eskatuko diogu laguntza hau lortzeko baina guk aginduko dugu momentu guztitan gure ideia izan delako hau guztiarekin hastea.

Marketina ere kanpoko enpresa batek eramango du eta guk lagundu egingo dugu gure ikuspuntua emanaraziz. Beste enpresek egiten diguten guztia guk gainbegiratuko dugu, mantenimendua adibidez, errorerik ez egoteko eta dena egon behar den bezala egoteko.

Baina azkenean esan bezala guk ez dugu jarduera askorik izango ia lan guztia kanpoko enpresek egingo dutelako lehenago guk aginduta eta lagunduta. Beranduago, enpresa handiagoa egitean, baliteke zenbait jarduerak guk geuk egitea, enpresa nahiko handia izango delako ordurako eta ahalmen gehiago izango dugulako.